Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

3849

405/2009 DEKRETUA, ekainaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao SL» erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena emateko dena.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak honako hau ezartzen du 110.1 artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean.

Kapitala ordezkatzen duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak nahitaez adieraziko ditu, non eta doako eskuratzea ez den, sozietatearen xedea eta EAEk sozietatean, zuzenean nahiz zeharka, zenbateko partaidetza-portzentajea izango duen.

Azaroaren 29ko 460/1994 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena eman zitzaion «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao SL» erantzukizun mugatuko sozietateko kapital-gehikuntzan parte hartzeko. Harrezkero, Euskal Autonomia Erkidegoak ehuneko berrogeita hamarreko partaidetza du sozietate horren kapitalean; Bizkaiko Foru Aldundiak, berriz, gainerako ehuneko berrogeita hamarrekoa.

«Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao SL» sozietatearen xedea edozelako artelan eta -sorkuntza motak eskuratu eta ustiatzea da, baita arte-erakusketak eta –erakustaldiak antolatzea ere.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2009ko martxoaren 16an egindako bilkuran, Bazkideen Batzarrari kapitala gehitzea proposatzea erabaki zuen, besteak beste. Gehikuntza horri esker, Bilboko Guggenheim museoko bilduma propiorako 2009ko erosketak egin ahal izango ditu. Proposamen horrek beste 5.000 partaidetza harpidetu beharra eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, guztira hiru milioi bost mila eta berrogeita hamar (3.005.050) euro, horrela eutsi ahal izango baitio «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

3849

DECRETO 405/2009, de 16 de junio, por el que se autoriza a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la toma de participación en la ampliación de capital en la sociedad de responsabilidad limitada Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.

El artículo 110.1 del Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, establece que la adquisición de bienes y derechos integrantes del patrimonio empresarial requiere autorización previa del Consejo de Gobierno, por decreto, a propuesta conjunta del consejero o consejera competente en materia de patrimonio y del consejero o consejera del departamento al que, directamente o a través de un ente instrumental, se encuentre o vaya a encontrarse vinculada la sociedad. El decreto será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su eficacia desde la fecha en que se dicte.

El decreto que autorice la adquisición de valores representativos de capital, salvo que se trate de adquisición a título gratuito, indicará necesariamente el objeto social y el porcentaje de participación, directa o indirecta, que tendrá la Comunidad Autónoma en la sociedad.

Mediante Decreto 460/1994, de 29 de noviembre, se autorizó la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la sociedad de responsabilidad limitada Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L., siendo dicha participación desde entonces de un cincuenta por ciento del capital social, correspondiendo el otro cincuenta por ciento a la Diputación Foral de Bizkaia.

El objeto social de la sociedad Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L. es la adquisición y explotación de toda clase de obras y creaciones artísticas, así como la organización de exposiciones y muestras de arte.

El Consejo de Administración de la sociedad, en su sesión celebrada el 16 de marzo de 2009, acordó, entre otros asuntos, proponer a la Junta de Socios una ampliación de capital para la obtención de los recursos necesarios con los que acometer el programa de adquisiciones de la colección propia del Museo Guggenheim de Bilbao durante el ejercicio 2009. Tal propuesta supone, a fin de mantener el porcentaje de participación que se ostenta sobre la sociedad Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L., que el

Bilbao SL» sozietatearen kapitalean duen partaidetzaren portzentajeari.

Lehenengo paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, beharrezkoa da Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena ematea sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko. Bestalde, kreditu nahikoa dago 5.000 partaidetza harpidetzeko.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Kulturako sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko ekainaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao SL» erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital-gehikuntzan parte har dezan, zehazki, sozietatearen Batzar Orokorrak erabakitzen duen gehikuntzaren barruan, hiru milioi bost mila eta berrogeita hamar (3.005.050) euroz parte hartzeko. Horretarako, bost mila (5.000) partaidetza erosiko ditu —bakoitzaren balio izenduna seiehun eta bat euro eta zentimo batekoa (601,01) izango da— eta guztiak batera ordainduko ditu.

Sozietateko Bazkideen Batzarrak kapitala gehitzeko erabakia hartu, eta ondoko hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du partaidetza.

Gehikuntzaren ostean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietate horretan edukiko duen partaidetza berrogeita hamaika milioi ehun eta hamabost mila bederatziehun euro eta berrogeita hamar zentimokoa (51.115.900,50) izango da, laurogei eta bost mila eta berrogeita hamar (85.050) partaidetzetan banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak «Tenedora de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao SL» sozietatean edukiko duen partaidetza kapitalaren ehuneko berrogeita hamarrekoa izango da, gainerako ehuneko berrogeita hamarra berriz, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko ekainaren 16an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Gobierno Vasco suscriba 5.000 nuevas participaciones, por un valor total de tres millones cinco mil cincuenta (3.005.050) euros.

De conformidad a lo señalado en el párrafo primero es necesaria autorización del Consejo de Gobierno para la toma de participación en la ampliación de capital de la sociedad y existiendo crédito adecuado y suficiente para atender la suscripción de las referidas 5.000 participaciones.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda y de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de junio de 2009,

DISPONGO:

Artículo único.– Autorizar la toma de participación, por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en la ampliación de capital de la sociedad de responsabilidad limitada Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L., por un importe de tres millones cinco mil cincuenta (3.005.050) euros, sobre el total de la ampliación que la Junta General de la sociedad acuerde, mediante la adquisición de 5.000 participaciones de seiscientos un euros y un céntimo (601,01) de valor nominal cada una de ellas en un único desembolso.

El desembolso se efectuará en el plazo de los treinta días siguientes a la adopción del acuerdo por la Junta de Socios de la mercantil de la ampliación de capital.

Tras la citada ampliación, la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el capital social de la citada sociedad será de cincuenta y un millones ciento quince mil novecientos euros y cincuenta céntimos (51.115.900,50), representada por ochenta y cinco mil cincuenta (85.050) participaciones. La participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la sociedad Tenedora de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L. será de un cincuenta por ciento del capital social, correspondiendo el otro cincuenta por ciento a la Diputación Foral de Bizkaia.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de junio de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.